

NBE-REN 75 URTEAK

Pandemiak agerian utzi du zaharkituta geratu dela 1945ean sortutako erakundea

 POLITIKA / Dabid LAZKANOITURBURU


Bideo bidezko hitzaldiekin ari dira egiten egunotan Nazio Batuen Batzar Nagusia. Pandemia da arrazoia, baina erakundeak bizi duen krisialdi sakonaren metafora ere bada. Ekialde Hurbileko liskarren odoretan sortutako munduko gobernantzaren asmoak hortxe du bere porrotaren ispilua. Errua ez da berea, munduko potentziena baizik. Baina...

Iraileko hirugarren asteartean ekiten dio urte politikoari Nazio Batuen Erakundearen (NBE) Batzar Nagusiak eta ondorengo egunetan igotzen dira tribunara munduko agintariak –aurten, koronabirusa dela eta, lehen aldiz bideokonferentzia bidez egin da–, teorian

hurrengo hilabeteetako ildoak finkatzen dituzten diskurtsoak egiteko. Errealitatean inolako eragirik ez duten agerraldiak dira. Izan ere, duela 75 urtetik NBE-ren egoitzan, New Yorken, urtero egiten den bilkurari «goi mailako eztabaida» edota «eztabaida orokorra» esaten diote, baina egiazki goi agintarien

agerraldi segida bat baino ez da, eta ez da izaten inolako eztabaidarik. Duela 75 urte, Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoren eratu zen Nazio Batuen Erakundea. Sei organoz zegoen osatua: Batzar Nagusia, Segurtasun Kontseilua, Ekonomia eta Gizarte Kontseilua, Administrazio Fidiuziarioaren Kontseilua, Nazioarteko Justizia Auzitegia eta Idazkaritza. Batzar Nagusia da erakundetik handiena, 193 estatu ordezkatzeko baititu. Hala eta guztiz ere, erabakirik garrantzitsuenak Segurtasun Kontseiluak hartzen ditu. Bertan ordezkaritza iraunkorra dute bost potentzia nuklearrek (AEB, Errusia, Britainia Handia, Txina eta Estatu frantsesa), eta beto eskubidea dute. Gainerako estatuak txandaka eta urtebetez

Salman Saudi Arabiako erregearen hitzaldia NBEren Batzar Nagusian. Eskinder DEBEBE | AFP



betetzen dituzte beste hamar eserlekuak.

Zertarako balio dute, beraz, irailero munduko mandatariek Batzar Orokorraren aurrean egiten dituzten hitzaldiak? Teorian bederen NBERentzat larrienak diren gaiak jartzen dituzte mahai gainean, urtean zehar landu beharrekoak

KORONABIRUSA ERDIGUNEAN

Aurten, nola ez, koronabirusa dago kezka guztien oinarrian. Bide batez, Garapen Iraunkorrerako Helburuek markatuko dute agenda, batez ere kontuan hartuta pandemiarekin duten zerikusia. Izan ere, NBEk azpimarratu duenez, mundu mailako izurriteak agerian utzi du 2030. urtera begira 2015ean adostu ziren 17 erronkak betetzeko premia.

Mandatarien hitzaldiak amaitu eta berehala hasten dira Batzar Nagusiaren barnean dauden sei batzordeen lanak. Lehenak armagabetzea eta segurtasuna ditu ardatz, bigarrenak kontu ekonomikoak eta finantzarioak, hirugarrenak gai sozialak, kulturalak eta humanitarioak. Laugarrena deskolonizazioaz eta antzeko gai politikoek arduratzen da, bosgarrena aurrekontuez eta kontu administratiboez, eta seigarrenak auzi kontuak aztertzen ditu.

Batzorde bakoitzean 193 estatuetako ordezkari bana dago. Erabaki batzuek gehiengo sinplea baino ez dute behar, beste batzuk, berriz, gehiengo indartua, baina praktikan kontsentsuaren bidez adosten dira erabakirik gehienak.

Nazio Batuen Erakundearen 75. Batzar Nagusia hilaren 29an amaituko dira. Pandemia dela-eta bideokonferentzia bidez egiten ari dira hitzaldiak, baita Donald Trump AEBetako presidentearena ere.



Ameriketako Estatu Batuetako eta NBERen ikurak New Yorkeko egoitzan.

Spencer PLATT | AFP

Betiko moduan, Brasilgo presidentea, Jair Bolsonaro, izan zen lehena hitza hartzen. NBE sortu zenean egin zen lehen Batzar Nagusian inork ez zuen nahi izan lehena hitza hartzen eta Brasilek proposatu zuen aurrena izatea.

Datorren asteazkenean, hilaren 30ean, Bioaniztasunari buruzko Gailurra egingo da. Urriaren 1ean, berriz, emakumearen auzia izango da aztergai eta biharamunean, arma nuklearren suntsipena.


Pandemiak, nola ez, baldintzatu ditu debate guztiak, aurtengo Batzar Nagusiaren leloak adierazten duen bezala: «Nahi dugun etorkizuna, behar ditugun Nazio Batuak: multilateralismoarekin dugun konpromiso kolektiboa berresten dugu. Covid-19ari aurre egitea ekimen multilateral eraginkorrenarekin».

URTERO, KALE EGIN GABE

Urtero egin da, 1946tik, munduko agintarien arteko eztabaida, baita aurten ere. Inoiz ez da bertan behera utzi. Zenbait urtetan atzeratu egin behar izan zuten, eta horietako bi sonatuak izan ziren. Lehena 1964koa, hemeretzigarren saioa. Sobietar Batasunak ez zuen ordaindu zegokiona Kongoko bake operazioan eta horrek abenduaren 3ra arte atzeratu zuen hasiera.

2001. urtean, irailaren 11ko erasoak izan ziren Batzar Nagusiaren 56. saioaren bezperatan. Azkenean, azaroaren 10etik 16ra egin zen New Yorkeko gailurra.

Aurten, NBEko idazkari nagusia den Antonio Guterres portugaldarrak hau adierazi zuen harrerara ekitaldian: «Gure 1945aren aurrean gaude (...) Covid-19aren pandemiak orain arte gure bizitzan ezagutu ez du-



gun krisia ekarri du eta aurten-
go Batzar Nagusia ere guztiz
desberdina izango da».

Izurriteak agintzen duen
distantziak «aurrerapausoak
zailduko dituen arren, izan
ere, eraginkorra izateko, diplo-
maziak kontaktu pertsonala
behar du», Guterres baikor
azaldu zen eta bake bidean
«seinale positiboak» nabar-
mendu zituen Afganistan, Su-
dan, Siria, Libia eta Ukrainan.

Ekialde Hurbila, ISPILUA

Gatazka bakoitzak bere ezau-
garriak ditu eta NBek guztie-
tan du presentzia, kasko urdi-
nen bitartez ez bada
bitartekaritza misioekin edota
bulego humanitarioekin. Hala
ere, Ekialde Hurbilean bizi den
egoerak eta NBeren lorpenek
eta gabeziek hitz guztiek baino
hobeto erakusten dute 75 urte
bete dituen erakundearen ibil-
bidea eta etorkizuna.

Izan ere, Ekialde Hurbilean
hasi zuen jarduna NBek. Ba-
tzar Nagusiak 1947an Palestina

zatitzeko britainiarrek, Israe-
len eta AEBen presioen ond-
orioz, proposatutako plana
onartu zuenean. Orduan So-
bietar Batasunaren oniritzia
izan zuen plan hori dago
egungo arazoen jatorrian.

NBEk Palestinara bidali zi-
tuen lehen misioak, errefuxia-
tuena tartean (UNRWA), eta le-
hen bitartekaria. Eta emaitzak,
75 urte igaro ostean, ez dira
oso onak, hitz gordinagoak ez
erabiltzearen. Eta ez bakarrik
Afganistango bake prozesuan
NBek inolako rolik ez duelako.
Horren erakusgarri da, hain
zuzen ere, AEBek eta taliba-
nek –Errusiaren babes taktiko-
arekin– euren artean negozia-
tu dutela Qatarren.

Israelen eta palestinarren ar-
teko gatazkan Donald Trumpek
iragarri dituen akordioei dago-
kienez –Arabiar Emirerri Batuek
eta Bahrainen Israelekin harre-
manak normalizatu dituzte–,
NBek ez du, beste behin, parte
hartzerik izan, eta hitzarmena
txalotu baino ez du egin. Bestal-

de, txalo horiek arabiarren ha-
serrea areagotu dute. Eta ez da
lehenengo aldia.

Hasieratik NBeren lana ez-
baian jarri bazen ere –1948an
Palestinara bidali zuten lehen
ordezkaria, Folke Bernadotte
suediarra, judu talde batek be-
re gain hartu zuen atentatu
batean hil zen–, 2003ko Irake-
ko inbasioak erabat lurperatu
zuen erakundearen sinesgarri-
tasuna arabiarren artean.

Aurrez NBek Saddam Hussei-
nen Iraki ezarri zizkion zigo-
rrek kritika ugari eragin zituen.
Eta Nazio Batuek AEBen inba-

Kasko urdinak Libanoko
mugan.
Mahmoud ZAYYAT | AFP

**Akatsak akats, argi dago arazoa ez dagoela
NBeren ahalmenetan, haren ahultasunetan
baizik. Sortu zenetik ez du izan botererik bere
ebazpenak errealitate bilakatzeko**

**Erakundearen egoitza hartzen duen
herrialdeko presidenteak, Trumpek, NBerekiko
adierazten duen mespretxuari erreparatzen
badiogu, etorkizun zaila du, egiazki**

sioa onartu ez arren, okupazioa
hasi eta biharamunean han
zeuden eta irakiar askok okupa-
tzaileekin nahastu zituen.

Sergio Vieira de Mello Bag-
daden ordezkari zenak Berna-
dotte suediarren patu odol-
tsu bera izan zuen, kasu
horretan irakiar erresisten-
tziaren eskutik.

Iraken okupazioaren *statu
quo*-arekin egin zuen moduan,
Sirian ere NBek Baxar al-Assa-
den gobernuarekin negoziatu
zuen laguntza humanitarioa,
eta horrek ere kritika zorrotzak
eragin ditu Siriako erregime-
nak gerra zibilaren eztandan
ardura nagusia izan zuela kon-
tuan hartuta.

Hala ere, akatsak akats, argi
dago arazoa ez dagoela NBE-
ren ahalmenetan, haren ahu-
lezietan baizik. Sortu zenetik
ez du izan botererik bere ebaz-
penak errealitate bihurtzeko.

Palestinaren zatiketa ezar-
tzen duen 181. ebazpena ez da
guztiz bete eta Israelek ez ditu
betetzen han jasotako agindu
asko (Jerusalemen estatusa,
mugak). Egoera horrek, beste-
ak beste, agerian utzi du NBE-
ren ezintasuna. Batez ere beto
eskubidea duten potentziek,
gehien bat AEBek eta Errusiak,
ez diotelako gauza handirik
egiten uzten. Egoera horrek
NBeren jaiotegunean du jato-
rria. Gutxi balitz, erakunde-
aren egoitza hartzen duen he-
rrialdeko presidenteak,
Trumpek, NBerekiko erakus-
ten duen mespretxuari erre-
paratzen badiogu etorkizun
zaila du, egiazki. Eta orain be-
ren burua multilateralismoa-
ren defendatzailetzat duten
Txinaren eta Errusiaren eskue-
tan badago, jai du erakundeak.

75 urte ez dira asko mundu
mailako erakunde batentzat.
Baina argi dago batzuek eta
besteek ahulduta utzi dutela.